



Esp.kodea: 2025PHEL0002

Gaia: "Lan Aukera Eraikuntza" Enplegu-
formakuntza programa

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA / IRAUPENA
Taldeburu 1	LAN AUKERA-ERAIKUNTZA, enplegu- formakuntza programa. Arrasateko Udalaren ardurapeko hainbat kirol instalazio eta espazioen kalitatea hobetzeko egokitzapen-lanak egitea, zehazki igeltserotza eta pintura lanekin lotuta.	6 hilabete, %75 jardunean (2025eko irailaren 24ra arte)

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Eskolako Graduatua, LH 1 edo baliokidea izatea edo hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
1. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea
- Igeltserotza eta Pintura mantenu arloan gutxienez 10 hilabeteko lan esperientzia, edo formazioa (gutxienez lanbide heziketako lehen mailako ziurtagiri profesionala Igeltserotza eta Pintura arlo profesionaleko espezialiteren baten)
- B gida baimena
- Igeltserotza eta Pintura lanetan aritzeko osasun edo bestelako eragozpenik ez edukitzea.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, aurreko puntuan ezarritako baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIAREN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaiaren aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituak baloraturuz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkaritza sindikalak proposatuta.



Esp.kodea: 2025PHEL0002

Gaia: "Lan Aukera Eraikuntza" Enplegu-formakuntza programa

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, hautagaien zerrenda, hautaketa frogan informazioa eta abar) udaleko web orrian argitaratuko dira (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko dira BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
 - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
 - Tel.: 943 252000
 - baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

Interesa adieraziko duten hautagaiek behean azaltzen diren probak egin beharko dituzte, eta merituen balorazioa egingo zaie, honela:

- **Merituak: (20 puntu)**
 - Euskara: 2. HE egiaztatzea (agiriz, ez da probarik egingo): 10 puntu
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
- **Probak: (80 puntu)**
 - *Teoriko-praktikoa:* Igeltserotza eta Pintura arloari buruzko proba teoriko-praktikoa. 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* motibazioa, parte hartzeko prestutasuna eta aukeraren beharra neurtzeko elkarrizketa egingo da. 0-30 puntura baloratuko da eta gutxienez 15 puntu atera beharko dira aurrera egiteko.